

Euskara maila frogatu beharko dute Iparraldeko ikasle elebidunek

Frantziako Hezkuntzak eta EEPk euskarazko eredueta kalitatea garatzeko plangintza aurkeztu dute

AITOR RENTERIA
Baiona

Philippe Carriere Paueko (Frantzia) akademia ikuskari berriak euskararen aldeko urrats garrantzitsua aurkeztu zuen atzo, Max Brisson EEP Euskararen Erakunde Publikoko presidentarekin batera. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako Ikasle elebidunek euskara maila frogatu beharko dute. Hezkuntza publikoa, pribatua eta murgiltze ereduak kontuan harturik, Ipar Euskal Herriko lehen mailako bi eskolatik batean euskara irakasten dela azpimarratu zuen Brissonek xedea aurkezterakoan. Urrats kuantitatiboa egin ondoren urrats kualitatiboari ekiteko tenorea dela azaldu zuen.

Hizkuntza bizen Europako Kontseiluaren Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuan oinarriturik, ikasleek maila bakoitzean lortu beharreko ezagutza eta gaitasunak finkatuko dituzte lehen aldiz. Ofiziala ez izatean, euskarak ez du ukanen frantsesak duen eskakizun maila bera, baina lortu beharreko helburuak finkatzen dira. Sistema konplikatu dela eta plantan ezartzeko denbora behar dela erran zuen atzo Jean Claude Iriart EEPko zuzendariak. Ber-

tze urrats garrantzitsu bat egitea ere onartu du Carrierrek: «Frantziako Konstituzioak aitortzen duen oren kopurua baino gehiago egin ahal izango dute ama-eskola batzuetan, betiere esperientzia gisa eta guraso eta ikastetxearen adostasunarekin».

Bigarren mailan ere urrats garrantzitsua egiteko xedea daukela azaldu zuten. Izan ere, legeak parekotasuna aitortu arren, errealitateak ikastetxe publikoetan euskaraz ematen diren oren kopurua ez da laurdenera heltzen. Helburua parekotasuna lortzea dela aitortu dute. Euskara eta historia-geografia dira euskaraz ematen diren ikasgaiak. Matematikak ere euskaraz emateko xedea dutela azaldu zuen Iriartek.

Ororen buru, ikasleen euskara maila neurtzea da xedea. Azterketak egokitu eta bigarren maila bukatzean EGA agiriaren parekidea sortu nahi dute. Euskaltzaindiarekin elkarlanean egin nahi dute urrats hori. Alta, agiria ofiziala izan bada ere, agiri horri eskainiko zaion balioari buruzko xehetasunik ez dute aurkeztu.

Frantziako Administrazioak erdi itxirik zeukan bertze ataka bat ere ireki da, irakasleen prestakuntzarena alegia. Bai EEPko ordezkariak, bai Paueko akademia ikuskariak, aurkeztu duten plana orain eta bere horretan gauzatzea ezinezkoa dela aitortu dute. Irakasleen prestakuntza bermatzeko asmoz plangintza bat jarriko dute abian.



Jean Claude Iriart EEPko zuzendaria, Max Brisson EEPko presidentea eta Philippe Carriere Paueko akademia ikuskaria. BOBÉME

Zazpi ataletan garatuko duten programa aurkeztu zuen atzo. Honako hauek dira ardatzak;

Irakaskuntzaren egituraketa

Hiru eredueta lehen eta bigarren mailetan, ikasleek lortu beharko dituzten mailak zehaztuko ditu Frantziako Hezkuntzak, Europar onartu dituzten ereduaren arabera. Ikasleen ezagutza frogatzeko ebaluazio sistema osatu eta ikasleentzako agiriak sortzeko asmoarekin, ziurtapen prozedurak abian jarriko dira, Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

Irakasleen prestakuntza

Hiru sareetako lehen mailako irakasleen oinarritzako prestakuntza eta prestakuntza jarraituko egiturak egokituko dira, euskararen beharrik kontuan hobeto hartzeko.

Norabide dokumentua

Lehen mailako ikastetxe elebidunetako irakaskuntzen antolaketa-rako norabide dokumentua osatuko da. Bertan ezagutza maila eta gaitasun heinak kontuan hartuko dira, kontuan hartuz euskararen berezitasuna.

Lanpostuen esleipena

Eskola publikoko lehen mailako irakasle postuak esleitzeko ratioa

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA IPAR EUSKAL HERRIAN

Lehen mailako ikasleak

Eskola publikoak	2004-2005	%	2005-2006	%	2006-2007	%	2007-2008	%
Ikasleak guztira	16.731		16.832		16.0821		17.221	
Elebidunak	3.091	18,5	3.305	19,6	3.627	21,6	4.007	23,3
Eskola girstinoak								
Ikasleak guztira	6.108		6.051		6.058		6.272	
Elebidunak	1.453	23,8	1.504	24,9	1.624	26,8	1.754	28
Ikastolak								
Ikasleak	1.387		1.404		1.462		1.498	
Sare guztiak	2004-2005	%	2005-2006	%	2006-2007	%	2007-2008	%
Ikasleak guztira	24.226		24.287		24.341		24.991	
Elebidunak	5.931	24,5	6.213	25,6	6.713	27,6	7.259	29

(TURRIA: EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA)

finkatu dute: gela bat irekitzeko, beharrezkoak izanen dira 25 ikasle frantses elebarko geletan, eta 22 elebidunetan.

Oren gehiago euskaraz

Lehen maila publikoetan, esperientzia gisa, euskara oren gehiago emateko hautua irekitzen da, gurasoek eta ikastetxe arduradunek adosturik. Frantziak baimena eman du horretarako.

Hitzarmena murgiltze ereduari

Seaska eta Frantziako Hezkuntza arduradunak akordio bat lortzeko urratsak egiten hasi dira. Helbu-

rua hitzarmena lortzea da, batetik irakasle postuen esleipena finkatzeko lehen mailan, bertzetik orenen arabera baliabideak bigarren mailan, ikastetxe berriak irekitzeko prozedurak eta azkenik hizkuntza gaitasuna ebaluatzeko tresna partekatua sortzea.

Oren kopurua bermatu

Irakaskuntza elebiduneko bigarren mailai begira, euskaraz ematen diren orenak emendatuko dira. Legez erdiak izan behar badute ere, praktikan %20 inguru ematen dira euskaraz.

Eperik gabeko borondatea oinarri



analisia

AITOR RENTERIA

Ipar Euskal Herrirako hizkuntza politikak urrats garrantzitsuak egin du EEPk eta Paueko Akademia Ikuskariak aurkeztu duten epe luzerako programare-

kin. Euskalgintzako gizarte eragileen aldarrikapen historiko ugari biltzen diru bertan, baina ez egingdako guztiak eta ez egingdako moldean. Euskara maila frogatu beharko dute ikasleek. Iragartzea bat da, helburua lortzea bertze bat. Lehenik, euskara «Europako hizkuntza bizi» gisa onartzen du Frantziak. Ez du frantsesaren heinean jartzen, euskara ez delako hizkuntza ofiziala.

EEPk behin eta berriz errepikatutako ofizialtasunik ezean ezin zaiola hizkuntza politikari helburu zehatzik jarri. Oraingoan, hezkuntza arloan, jarri dizkio. Alta,

helburu horiek lortzeko epeak ez ditu zehaztu. Horrez gain, ez dute azaldu zer gertatuko den helburu horiek, finkatu ondoren, ezin badira lortu.

Akademia ikuskariak karta bat atxiki du. «Esperientzia gisa» ama-eskola batzuetan oren kopurua indartu ahaliko dute, gurasoek eta ikastetxeak nahi badute. Betiere Frantziako Hezkuntza arduradunen onepenenarekin. Borondatean oinarritutako «esperientzia» horiek, ordea, mugak ditu. Legeak oren parekotasuna agintzen du, eta ikuskariak erran bezala, «Frantziak batzuetan ez ikusiare-

na» egin badu ere, ezin du onartu murgiltze ereduaren baliatzea bere sistemaren barnean. Legez kontrakoak litzateke. Frantsesa nagusi den gizarteetan, helburuak lortzeko dira oren parekotasuna bada abiapuntu bakarra.

Ezagutza eta gaitasun frogara eratu ahal izateko irakasle prestakuntza beharko dira. Itxirik zegoen ataka irekiko da Frantziak aintzat hartzen baditu Paueko akademia ikuskariak onartutakoa. Hori lorturik ere, sistema guztia borondatean oinarritzen denez, irakasleen artean sentsibilizazio kanpaina eraginkorra egin beharko dute prestakuntza hori segi dezaten. Sindikatuak indartsuak dira, eta ez da errana protestarik gabe onartuko dutela proposaturikoa.

Seaskarekin hitzarmena lantzeko bidea ireki dute. Irizpideak finkatuko dira irakasleen kontratazioa bermatzeko lehen mailan, oren kopuruaren arabera lanpostuak finkatzeko bigarren mailan, eta zuzendaritza funtzioari dagozkion orenak. Guztia lorturik ere, urrutiko murgiltze ereduaren garapenaren bermea. Egotzen afera funtsezkoa da eta eskaintza hiru herrialdeetan garatu ezean, korapiloa ez da askatuko.

Bigarren maila bukatzean ikasleen EGA agiriaren «parekidea» lortuko omen dute. Bidezkoa da galdetzea euskarari ofizialtasunik aitortzen ez dion estatuak nolako ofizialtasuna aitortuko dion berak sortutako agiriari. Lanpostu bat bermatuko die ikasleei? Erakundeek onartuko dute agiria?